

BEZEROEN ERLAZIOA

Gure aplikazioa, aurretik esan bezala, Play Store-tik deskargatuko da. Gure bezeroekin erlazioan jartzeko web orri bat egingo dugu. Bertan, aplikazioaren erabilerari buruz informazio lagungarria txertatuko dugu, gainera, bertatik aplikazioa deskargatzeko aukera izango dute ere bezeroek, Play Store-ra iristeko link baten bidez. Instagram izeneko sare sozialetik ere, gure bezeroekin jarriko gara kontaktuan. Instagrametik informazioa ere transmitituko dugu eta gainera, sare sozial honen bidez laguntza eskainiko dugu, gure bezeroek dituzten galdera edo arazo guztiak zehaztuko ditugu.

